

## Herritar ugari bildu zen atzo Azkortekeko erromerian

Urtero moduan, Santa Krutz egunaren ondorengo lehenengo igandean erromeria antolatzen du Ttakun Kultur Elkarteak Azkorteke ermitan.

Atzo ospatutako edizioan eguraldiak ateri eutsi bazion ere, haizea oso zakar ibili zen eta eguerdi aldera arte ez zen baretu. Hala ere jende ugari bildu zen, eguraldiari aurre eginez, ermita inguruan. Asko izan ziren autobusez igo zirenak, baina beste asko ere oinez animatu ziren tarteka erortzen ziren euri tantei aurre eginez.

Erromeria goizeko 11:00etan hasi zen mezarekin. Bertan, lasarteoriatar ugari hartu zuten parte, izan ere Alboka abesbatzako kideek zenbait abesti eskaini zikieten bertara hurbildutakoiei, eta Amalur trikitixa eta pandero

eskolako haurrek ere pieza politak jo zituzten.

Behin meza bukatuta, Amalurreko kideek kanpoan jarritu zuten jotzen eta giroa alaitzen. Bertaratutakoek bitartean, sabela berotu zuten txorizo, haragi, odolki edo saldairekin.

Hurrengoan txanda bertolariena izan zen. Patxi Etxeberria eta Zigor Iriondo ederki aritu ziren haizeak hoztutako giroa berotzen.

Jarraian herri kirolen txanda izan zen. Urtsi eta Iraitz Telleria harria jasotzen aritu ziren eta aizkoran berriz Aratz Mugertza mutrikuarra eta Jabier Elorriaga urretxuarra. Merezitako txalo zaparradak jaso zituzten kirolariak, batez ere zaharrenek (Urtsi eta Elorriaga) proba mistoan irabazi eta gero. •



Urnietako apaizak eman zuen meza Azkorteke ermitan.



### Lagun ugari Juan Mari Cerezo musikariaren oroimen festan

Juan Mari Cerezoren gitarrak leku berezia izan zuen Andatza plazan bere omenez larunbatean burutu zen festan. Oholtzan jarri zuten eta bertan izan zen kontzertuak iraun zuen zazpi ordutan. Egun guztiko festa egin zen Cerezo musikaria gogoratzeko. /5



Amalurreko kideek ederki alaitu zuten giroa, jendea dantzaz jarriz.



Herri kiroletan zaharrenek irabazi zuten proba mistoan.

### KIROLA /2

Iñigo Arluziaga eta Oskar Lazkano zazpigarren aldiz irabazle XVI. Pala txapelketan

### GIZARTEA /3

Gizarte zerbitzuak indartuko ditu Lasarte-Oriako Udalak

### ELKARRIZKETA/6

Xabier Ibarzabal, bioetikan aditu den medikuarekin solasean



IEFPS USURBIL GLHBI



Ate irekiak maiatzaren 15an eta 22an, larunbatez, 11 etan

Goi-mailako  
Erdi-mailako  
HEZIKETA  
ZIKLOAK



Mekanika



Elektrizitatea



Administrazioa

Energia eta ura



Mantenimendua

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com

# Lazkano eta Arluziaga txapeldun palan

■ 30-11 irabazi zioten Huegun-Castro bikoteari ■ Lizaso eta Alzibar izan ziren hirugarrenak

Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziaga erraz nagusitu ziren XVI. Pala txapelketako finalean. 30 eta 11 irabazi zioten Iñigo Huegun eta Patxi Kastrok osatu zuten bikoteari eta zazpigarren urtez segidan izan dira txapeldun. Haritz Urdanpilleta, Huegunen bikoteak ezin izan zuen finala jokatu eta bere ordezkari Patxi Kastro aritu zen. Aurretik hirugarren eta laugarren postua erabakitzekeo partida oso berdindua izan zen eta azkenean Iñaki Lizaso eta Joserra Alzibar 30-29 nagusitu ziren Bernaitz Odriozola eta Santi Martin iazko finalisten aurka.

**E**rritmo biziko finala ikusi zuten larunbat arratsaldean Michelingo frontoira hurbildu zirenek. Partida luzea izan bazen ere, ordu betekoa, bikote gorria hasieratik aurreratu zen eta Oskar Lazkano-Iñigo Arluziaga bikotea beti izan zen aurretik markagailuan. Azkenean 11 puntutan utzi zuten bikote urdina. Aipagarri da Iñigo Huegunek Patxi Kastore-

kin jokatu zuela finala, Haritz Urdanpilletak, ezin izan zuela-ko parte hartu.

Arratsaldeko 17:30ean hasi zen finala hirugarren postua erabaki zuen partidaren ondoren. Finalistak eta epaileak txistulari eta dantzarien atzetik sartu ziren frontoian. Ondoren minutu bateko isilunea egin zuten Xabier Bardajiren oroi-menez.

Hainbat urtetan txapelketako antolatzailea izan da Xabier Bardaji eta aurtengo txapelketa martxan zela hil da. Ondoren dantzariak agurra dantzatu zioten finalistei.

## Faboritoak txapeldun

Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziaga ziren faboritoak eta ez zuten hutsik egin. Hasieratik hartu zuten abantaila eta zazpigarren txapela eskuratu zuten. Azken zazpi urtetan bikote hau izan da nagusi Lasarte-Oriako pala txapelketan.

3. eta 4. posturako partida 16:30etan hasi zen eta ordu beteko lehia borrokatu eta parekatuaren ondoren amaiera bizia izan zuen. Bernaitz Odriozola eta Santi Martin, bikote gorria ia partida osoa aurretik joan zen eta soilik azken puntuetan hartu zuten aurea urdinek. Partidari buelta eman zioten Iñaki Lizaso eta Joserra Alzibarrek eta 30-29 irabazi zuten. •



Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziagak zazpigarren aldiz eskuratu dute txapela.



Xabier Bardaji omendu ondoren agurra dantzatu zieten finalistei.



LOKEko judoken entrenamendua ikusi ahalako da ETB-n, besteak beste.

## LOKEko judokak ETB-ko *Sut&Blai* saioan

Asteartean ETB3 katean eta asteazkenetik ostiralera ETB1-ean, 20:30ak aldera, LOKEko judokei buruzko erreportajea ikusteko aukera egongo da Nerea Aliasek aurkezten duen *Sut&Blai* saioan. Gorka Aristegi entrenatzaileak azaldu digunez, "entrenamendua grabatu eta judoka batzuei elkarriketa egin zitzaizen". Izan ere, saio honetan, Euskal Herriko neska-mutilen istorioak eta proiektuak dira protagonistak. •

## Lasartearrak elkartearen babesa Ostadarri

Lasartearra Elkarteak bazkideek azken asanbladaren Ostadar Kirol Fundazioari ekonomikoki laguntzea erabaki zuten. Beraz, hurrengo denboraldian, Ostadarreko kadete mailako taldeak Lasartearra Elkartearen izena eramango du kamisetetan.

Lehen aldia da Lasartearra Elkarteak Ostadar K.F.ri babesa ematen diola.

"Bazkideen erabakiak harritu gintuen, izan ere, beti bezala Texas-Lasartearra taldea babesteaz gain, gureari ere laguntza ematea erabaki dute. Eskertzekoa da Lasartearrak gurekiko izan duen konfidantza" adierazi dute Ostadarreko arduradunek.

Era berean, "modu batera edo bestera, herriko hainbat enpresa eta merkataria ari zaizkigu laguntzen. Hauei ere



Manex Lizarra, kadeteen kapitaina, eta Unai Olaizola, entrenatzailea, Josean Salsamendi Lasartearra Elkartearen ordezkariarekin.

eskerrak eman behar dizkiegu gure egitasmoan sinisteagatik eta urtetik urtera gurekin jarraitzeagatik. Ea denon artean lortzen dugun herriko

kirolariak herrian bertan gera daitezten," azpimarratu dute.

Bi entitateek kamisetaren aurkezpena egin dute aste honetan Lasartearra elkartearen. •

### Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintzarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintzarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Udalak Gizarte Zerbitzuak indartuko ditu hiru langile eta administratzaile batekin

Europako eguna, maiatzaren 9an dela eta, Espainiak duen Europar Batasunaren lehendakaritzarekin bat egiten duen mozioa irakurri zuen Jesus M. Zaballos alkateak

Krisi garaia gizarte osoan nabari da eta gehien pairatzen dutenak herritarrak dira. Lasarte-Oriako Gizarte zerbitzuak lanez gainezka daude, ordua eskatuz gero, hau lau hilabetetara eman eta zerrendan jartzen zaituzte.

Arazo honi irtenbidea eman nahian, Jesus Zaballos alkateak jakin arazi du, urte betez pertsonal gehiago jarriko duela, hiru gizarte langile eta administratzaile bat.

Izan ere, alkateak azaldu duenez, "egungo egoera gogorra da eta, nik beti esan bezala, gure lehenetasuna herritarrei erantzuna ematea da."

## Laguntza eta murrizketak

Alkateak jakitera eman duenez, langile berri hauek 177.000 eurotako gastua suposatzen diote Udalari.

Gastu honi aurre egiteko, batetik, Eusko Jaurlaritzari laguntza eskatu diote eta 52.000 euro eman dizkio Lasarte-Oriako Udalari.

Eta, hau nahikoa ez denez, murrizketa neurriak hartu dituzte bestetik.

Alkateak azaldu duenez, zerbitzu baten aurrekontua murriztuko da, "baina honek ez du herritarrengan eraginik idazgaro, ez dira konturatuko," adierazi zuen.

Murrizketekin jarraikiaz, alkateak bere soldata %20a



Gizarte Zerbitzuetako egoitzean, hilabete honetan hiru gizarte langile eta adminitratzaile bat hasiko dira lanean.

murriztu du, 17.000euro; alkate ordeak %15, 9.500euro; gobernuko 4 zinegotzi liberatuen soldatak, soldata baxuena zuenarekin berdindu dia; Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak ez du erabateko arduraldia izango, 9.300 euro; kooperazio eta ingurumen aholkulari teknikoaren eta prentsako arduradunaren soldatek ere murriztuak izan dira, %10a, baita alkatezako idazkariarena soldata ere, %5.

Era berean, Gobernu kideen telefonoetan 6.000 eurotako aurrezkia egongo dela aurreratu du Jesus Zaballos alkateak.

Hau guztiak, 128.000 eurotako aurrezkia suposatzen dio Udalari eta laguntzarekin batera, langile hauen urtebeteko soldatarentzat erabiliko da.

## Langileak eta postu gehiago

Alkateak adierazi duenez, "egun gizarte langile eskaera

handia dago. Bila gabiltza, udaleko poltsaan eta beste udaletakoetan begiratzen ari gara, baita Inemen ere."

Astelehenean gizarte langileetako bat lanean hasiko dela aipatu du eta besteak, hilabete honetan zehar.

"Zerrendaren arabera hasiko dira jendearekin lanean. Zenbatean murriztuko dute zerrenda, ezin ditugu epeak eman" adierazi du.

Honetaz gain, etorkizunera begira, Lasarte-Oriako

Udalak gizarte langile postu finkoak hirutik bostera handitu nahi dituela jakitera eman zuen.

"Hala ere, lehenik Gizarte Zerbitzuetako Batzorde eta Udalbatzarrean onartu behar da proposamena eta gero lehiaketara aterako dira postuak," azpimarratu zuen.

## Europako eguna

Era berean, maiatzaren 9an Europako eguna dela eta. Jesus Zaballos Alkateak 2009ko abenduaren 29an Udalbatzarrean onartutako mozioa irakurri zuen.

Honetan, Espainiako lehendakaritzan Gobernu lokalek duten garrantzia azpimarratzen da.

Ekimen honekin, Espainiaren Europar Batasuneko lehendakaritzarekin bat egiten duela adierazi du alkateak.

Honetaz gain, Kanpo Ministeritzako Europar Batasuneko Estatu Idazkaritzak eskutitza bidez, Europako eguna ospatzeagatik Udalari eskerrak eman dizkiola, jakin arazi zuen.

Halaber, herriko ikastetxeek ere Europar Batasuneko zerri ikusi ditzen hainbat ekintza egin dituztela gogoratu du, Institutuan, esate baterako, Bruselaren lanean dagoen herritar baten hitzaldua izan zen. •

## Marrazki eta Pintura erakusketa

Lasarte-Oria auzo elkarteak XXIV. Marrazki eta Pintura erakusketa zabalik du Manuel Lekuona kultur etxean maiatzaren 14ra bitartean. Oskar Tena, aurten izan duten irakasleekin egindako lanak erakutsiko dituzte Maria Antonia Ibargoyen, Clara Ortega, Shandra Lourido, Manuel Ramón González, Jose Daniel Pando, Ainhoa Marin, Maialen Carretero, Ainhoa Perez, Maider Perez, Enara Izagirre, Paula Martinez, Paula Cebria, Sara Segurado, Alaine Mayordomo, Ainhitze Prieto eta Luis Mari Prietok. Asteleheneetik ostiralera arratsaldetik 18:00etatik 21:00etara dago zabalik erakusketa. •



Erika Egileta bere lanetako baten ondoan.

## Altamendu faxistaren biktimak aurten Sorgin Jaietan pregoilari

Altamendu Faxistaren biktimei eman diete aurten Sorgin Jaietako pregoilari eta datorren larunbatean, maiatzaren 15ean egingo den Sorgin Jaietako aurkezpenaren protagonista.

Jaietako antolatzaileek zerbait ekitaldi burutuko dituzte datorren astean. Asteartean, maiatzaren 11an, memoria historikoari buruzko hitzaldi eta DVD emanaldia burutuko da Xirimiri elkartearen 19:30ean.

Ostegunean ordu eta toki berean, hau da, 19:30ean Xirimiri, Sorgin jaietako batzar irekia burutuko da. Bertan emango da aurten Sorgin Jaietako buruzko informazioa, zalantzak argitu eta eztabaidatuz.

Maiatzaren 15ean Sorgin jaietako aurkezpena egingo da Frontoi berrian. Egunduko egitaraua izango da. Goizeko 10etan umeentzako pilota jokoen hasiko dira ekitaldiak, ondoren sagardo dastaketa eta taloak eskainiko dira, 14:30ean bazkaria (20 eurotan sagardotegietako menua). Bazkalostean 16:30ean omenaldia egingo da faxismoaren biktimei.

Ondoren trikitalarien saioa izango da, Joseba Tapia eta Fermin Balentziaren emanaldia, 19:30etan erromeriaren lehen zatia Aitzama taldearekin, 23:00 Garrantzi Ixilak antzeslana eskainiko du Landa-berriko haldunen antzerki taldeak, eta ondoren erromeriak jarraituko du. •



# Oinatz taldea Bardeetara doa

Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroako Iparraldeko eremuak eta kondairak aztertu ostean, Oinatz taldeak Nafarroako hegoalderuntz, Bardeetara hain zuzen ere egingo du bere hurrengo irteera. Bi eguneko txangoak inguru berezi horretako txokoak ezagutzeko aukera emango du.

TXINTXARRI

**N**afarroako Kapadozia dela diote. Nahiz eta eremu lehorra izan, flora eta fauna handia du. Izan ere, Bardeak Parke Naturala eta Biosfera erretserba dira. Hainbat pista, txoko eta kondaira berezi aurkitu daitezke eremu honetan eta Oinatzeko lagunek hauek batzuk ikustera joango dira, maiatzak 22 eta 23an egingo duten bidaian.

Oinatzeko kideek azaldu digutenez, Bardeak hiru eremutan banatzen dira, lautada, Bardea txuria eta Bardea Beltza. Irteera honetan, Erriberako hainbat herrixka ezagutu eta Bardea txuriko eremuan murgilduko direla, zehaztu dute.

## Herriak

Kaparrasoko herrian hasiko dute bidaia, bertan El Cristo izeneko gotorlekua ezagutu ahaliko dute eta saindu baten kondaiara bitxia ere.

Jarraian, Erradako herri hutsera egingo dute. Erdi Aroan sortutako herrixka honetako aztarnak daude bertan. XV. mendean herria hustu zen eta XIX. mendean Nafarroa eta Aragoiko muga izan zen urte askotan.

Handik, Olibako monasterioa hurbilduko dira. Egun zisterterrek zuzentzen duten ezagutzera.

Ondoren, Zarrakasteluko erromatar aroko eta Erdi Aroko aztarnak ikusteko aukera aegongo da. Zarrakasteluko X. mendetik gotorlekua izan du, izan ere, mugako eta ibaiko bidesariak bertan ordaintzen ziren.


## Bardea Txuriak

Herri hauek bisitatu ostean, Bardeetan sartuko dira Oinatzeko kideak. Pista bat hartu eta pasabidean Artzainaren monumentua ezagutu ahaliko dute. Izan ere, bertan geratu behar ziren Erronkariko artzainak egiterakoan Bardeetara sartzen uzteko.

Poligono militarren inguruan dagoen pistatik, Peñaflo gaztelura egingo dute. Oinez ibilbidea izango da, laua eta eremuan zutik mantentzen den gaztelu bakarra bisitatu ahaliko dute.

Sancho El Fuerte-k XIII. mendean eraikia izan zen, ehizatzeo erabiltzen zuten erregeek eta bertan Blanca de Navarra-ren kondaira gertatu zela diote.

Dirudienez, aitzak bertan giltzatu zuen Blanca ezkondu



Mendeen eta higaduraren ondorioz, Castel de Tierra-ren antzeko tontorrak ikustea ohikoa da Bardeetan.

nahi ez zuelako. Gauetan, artzain batek gazta eta esnea eramaten zion eta horrela, biziraun zuen. Askatu zute-nean, Blancak eremuko lurak eman zizkion artzainari.

Eguna bukatzeko, Yugoko ermitara egingo dute. Bertan aterpetxea dago eta aukera bada bertan egingo dute lo.

Ermita amabirjina agertu zen lekuan kokatzen da. Istoriok dionez, XI. mendean, Argetaseko herrenari birjina agertu zitzaion bertan. Herrira jaitsi eta inork ez zuen sinetsi. Berrero, birjinaren bila joan eta honek guztiz sendatu zuen.

Aurretik, Argetas eta eremuko kobazuloen historia ezagutuko dute.

Bigarren egunean, bidelapurren eremuan sartuko dira.

Zapatuko putzua ezagutuko dute. Eta, ostean, Santxikorrota, bertako Robin Hood-en historia ezagutuko dute, baita Juan El Malo erregearena ere. Eta Santxikorrotaren gotorlekua ikusiko dute.

Santxikorrota edo Sancho Rota eremuko herritarra zen eta zaldun bat hilostean, hartu zuen fama. Juan el Malo erregea bidelapurren aurka egin

zuen eta Santxikorrotak bere gotorlekuan bere buruz beste egin zuen erregeak harrapatu biano lehen.

Horretaz gain, Rallon eta Pizkerrako laberintoan sartuko dira, oinezko ibilbidea egiteko.

## Izena ematea

Txango honetan parte hartu nahi duenak edo informazioa gehiago nahi duenak, Ttakin kultur elkartera hurbildu edo eta 943 371 484 zenbakira deitu. Izena ematea, maiatzaren 17a arte, egongo da irekia. •

## Herriko 250 neska mutil ahozkotasunaren festan

TXINTXARRI

**L**asarte-Oriako bi ikastetxetan, Sasoeta-Zumaburu eta Landaberrin, Unai Muñoa herriko bertsolaria arduratzen da ahozkotasunaren inguruko baloreak ikasleei transmititzeaz. Urtean zehar ikasitako herritarren aurrean erakutsiko dute ostegun arratsaldean Kultur Etxean

Ahozkotasunaren jaialdian. Arratsaldeko 17:15etatik aurrera 200 neska mutil baino gehiago igoko dira kultur etxeko oholtzara bertsoak kantatzera.

Lehenengo, aurreko bertsolaritza lantzen hasi direnak eta jaialdiaren bigarren zatian

horretan jada bi urte daramaten abestuko dute.

Jada sei urte pasa dira Lasarte-Orian "Ahozkotasuna eta Bertsolaritza" egitasmoa martxan jarri zutenetik eta Unai Muñoa arduradunaren ustez finkatua da jada.

Gero eta oinarri sendoa dago, Landaberrin 5. eta 6. mailako zortzi talde ari dira Unai Muñoarekin bertsolaritza ikasten, eta Sasoetan 4. eta 5. mailako lau talde.

## Berto kantari

Talde bakoitzak bere saioa prestatu dute osteguneko jaialdirako, Unai Muñoaren laguntzaz. Irakaslearen iritzi, hezkuntza arautuan egiten



Landaberrin eta Sasoetako bertsolariek Arrieskaletan duela bi aste elkarrekin merendatu zuten.

den trasmisio lana garrantzitsua da: neska-mutilei bertsolaritzaren iragana erakusten zaie eta ezagutza horretatik

ziurtatuko da etorkizuneko bertsolaritza.

Honekin batera, bertsolaritzaren baloreak, jarduerak

honen alde interesgarriak, jasotzen dituzte ikasleek, beste irudimena edo diskursoaren garapena. •



40 de Fiebre taldea, Juan Mari Cerezo-ren omenezko kontzertuan.

ARGAZKIAK: JAVIER ZATARAIN-J. ALTUNA



Hainbat lagun bildu ziren Andatza burutu ziren ekitaldietara.



40 de Fiebre kontzertu beroa eskaini zuen zazpi urte eta gero.



Bittor abeslariak eta Rafa baxujoleak jendearekin bukatu zuten.



Juan Mari Cerezoren gitarra eta atzean Unai 40 de Fiebreko baterajolea.

## Juan Mari Cerezo gogoan

■ Omenaldi eta kontzertu bikaina eskaini zioten lagunek 40 de Fiebreko gitarra-joleari ■ Ehundaka lagun elkartu ziren larunbatean egun osoan Andatza plazako festan

Juan Mari Cerezoren gitarrak leku berezia izan zuen Andatza plazako oholtzan. Duela zazpi urte istripu batean hil zenetik bere anaiak gorde duen gitarra eta bere zorroa, bateriaren ondoan izan ziren kontzertuak iraun zuen zazpi ordutan. Egunduz festak egin zen Cerezo musikaria gogoratzeko. 60 lagunek bazkaldu zuten oholtzan bertan eta gauean lagun ugari hurbildu ziren Andatza plazara. Plaza erraldoia jendez bete zela esatea askotxo da, baina bai oholtzaren eta ondoan jarri zen txosna inguruak.

JON ALTUNA

Lagun arteko festa erraldoia izan zen larunbat gauean Andatza plazan Juan Mari Cerezoren omenez egin zena. 40 de Fiebreko bere taldekideak bertan izan ziren. Hauek oholtzaren gainera igo zirenean iritsi zen kontzertuaren gailurra. Rafa baxu-joleak eta Bittor abeslariak ikusleekin bizkarrean bukatu zuten bata jotzen eta besteak kantuan.


Taldekideek Juan Mari Cerezo ordezkatu zuen Jabi Moraren laguntzarekin taldeak desagertu aurretik zuten indarra eta arintasuna argi erakutsi zuten emanaldiak iraun zuen ordu erdian. Ohi zuten bezala azkar jo zituzten ikusleek ondo ezagutzen zituzten kantuak. Buakaeran Juan Mariarekin batera taldea sortu zuen Rafa Lopez-ek oihukatu zuen "aupa Juan Mari Gogoan Zaitugu" hori lagun askoren bihotzera iritsi zen.

Lagun arteko festan, Juan Mari Cerezoren hainbat lagunek parte hartu zuten. Herri-tarrak ziren musikari gehienak.

Gaueko Itzalak taldeko gazteak izan ziren jotzen lehenengoak, ondoren Unai, 40 de Fiebreko taldekidearen Dictadura taldekoek giroa erabat berotu zuten, ondoren jo zuten Keep Digging, Obito, Zona mortuoria, Blondi22 eta Lili&The Tomboys taldeek, 40 de Fiebrearen aurrerik eta Despervicio taldeak eman zion amaiera goizaldeko 3etan kontzertuari.

Goizean goizetik ibili zen hainbat lagun Andatza inguruan, triki poteoan eta bazkalostean giro bikaina izan zen, eta gauean areagotu egin zen herriko taldeen kontzertuan.

Aipagarria da antolatzaileek Andatza plazako bizilagunei zuzendutako ohar bat argitaratu zutela eta plaza inguruko atari guztietan jarri, eguerditik goizaldeko 3ak arte "prestatu



Mora Cerezoren gitarrarekin.

ditugun ekintza ezberdinetan parte hartzera" gonbidatu, eta "era berean sor daitekeen edozein traba edota soinuaren gaineko barkamena" alde aurretik eskatuz.

Jakina da bizilagunek euren ezinegona luzatu diotela Udalarari ohar batzuen bidez. Cerezoren omenaldia antolatu dutenek, egoeraren jakitun, bizilagunen errespetua eta elkar ulertzea aldarrikatu zuten eta hauek gonbidatu zituzten "herriko gazteekin batera, hain maitatua den musikari lasartearen honen omenaldian parte hartzera". •



60 lagunek bazkaldu zuten Andatza plazako oholtzaren gainean.



Xabier Ibarzabal Aramberri Medikua eta Bioetikan aditua

# ‘Mugimenduan eta bizirik dagoen herria da Lasarte-Oria’

Gaur bertan hasiko dira Danok-Kide elkarteak urtero antolatzen dituen Balioetan Hezi jardunaldiak. Aurtengoa VII. edizioa izango dugu eta hautatutako gaia **Tolerantzia**. Astelehenetik ostegunera, arratsaldeko 19:30etan Manuel Lekuona kultur etxean hitzaldi batez gozatzeko aukera izango dugu. Gaur Xabier Ibarzabal Aramberri izango dugu Tolerantziaren ikuspuntu globala 4en inguruan.

ITXASO MORENO

**X**abier Ibarzabal medikua da, medikuntzako historia alorrean doktratu. Bioetikan aditua ere badugu donostiar hau. 30 urte daramatza Matia Fundazioan lanean, eta honetaz gain, hitzaldi asko ematen ditu. Gaur herrian izango dugu hizlari, 19:30 kultur etxean.

## Zertaz arituko zara zure hitzaldian?

Tolerantzia eta intolerantziaren inguruan jardungo naiz, beti ere, baloreen ikuspuntutik. Tolerantzia/intolerantzia gaia aurkeztean, balore batzuen gaineko garrantzia edo galeraren inguruan planteatzen dira.

Gertakari bortitz baten ondorioz intolerantzia gerta daiteke, baina orokorrean, pertsonen arteko ezbaiz, eztabaidetan, baloreetan dituzten ikuspuntu ezberdinengatik suertatzen dira intolerantzia edo tolerantzia arazoak.

## Tolerantzia ikasi egiten al da?

Oso garrantzitsua da ondo barneratzea eta onartzea, gizakiak naturalki intolerantziak garelako. Baina hezkuntza prozesuak aurrera egiten duen heinean tolerantzeagoak bihurtzen gara.

Tolerantzia/intolerantzia baloreen eraginez ematen da, eta horregatik, Danok Kideak aurten proposatutako gaian murgiltzeko, baloreetara joko dut.

## Zer dira baloreak?

Ezberdin egiten gaituena. Bizitzan errepikaezinak gara, eta balorez beteta dago guztia. Adibidez argia dugu emakume edo gizonezko bat

beste batez maitemintzen denean eta ingurukoek zer ikusten dion galdetzen diotenean. Berak besteak ikusten ez dioten balore bat ikusi dio.

Baloreak ezin dira zientziaren arabera azaldu, baina errealitatean, egunerokotasunean ohikoak dira. Orain puri-purian dagoen beste adibide bat, emakumeen zapia da. Mendebaldar bati kostatu egingo zaio zergatik daraman ulertzea. Emakume horrek guk ematen ez diogun balio bat ematen dio. Eztabaidak sortu dira, eta bide honetatik intolerantzia edo tolerantzia eman daiteke.

## Balioak sailkatu daitezke?

Tradizionalki bi eratan kudeatu dira balioak. Alde batetik, nik dut boterea eta nireak inposatzen ditut, adibidez mediku baten kasuan. Ni honetan aditua naiz, irizpide batzuk ditut eta zuk nik esandakoa jarraitu behar duzu, bestela ez goaz inora. Inposaketa metodo honek gudetara edo hondamenditara eraman gaitu askotan.

Beste metodoa neutraltasuna da. Medikuaren adibidearekin jarraituz, zuk gaixotasun bat daukazu, nik esplikatzen dizkizut egin beharreko probak, zu ados bazaude aurrera jarraituko dugu eta bestela, hemen ez da ezer pasatzen. Zuk papertxo bat sinatu sendabidea deuseztatzen duzula aipatuz, eta nik ahaztu egingo dut. Metodo hau oso arriskutsua da maneiatzeko, neutraltasuna existitzen ez delako. Bizitzan beti alde batera edo bestera jo behar da. Balio edo baloreetan ez da koloreekin edo gustukoekin bezala gertatzen. Bakoitzak ez ditu bere balore propioak.

## Tolerantzia ikasi egiten da, baina nola?

Tolerantzia izatea asko kostata ikasitako balorea dugu. Mundu liberala boterea hartzen joan zen heinean tolerantziaren ingurukoak ikasten hasi ginen, erlijioen arteko guda hasi ziren momentuan. Europar komunitatea kristau eta protestante multzoetan banatzen hasi ziren, tolerantzia intolerantziaren lehenengo ninikadurak ematez.

Ondorio ugari atera daitezke bertatik. Niretzako bizi-rauteko dagoen aukera bakarra ordenaturik, tolerantziarekin bizitzea da. Bestela oso gaizki bukatuko dugu. Eta horrek beste baloreak konpartitzea esan nahi du. Konturatu behar gara guk ez dugula guztiaren arrazoia, ez dugula egi absolutua.

## Tolerantzia indibidualki edo kolektiboki barneratzen da?

Kolektiboki dudarik gabe. Komunitate batean oso garrantzitsuak dira baloreak, euren bereizgarriak dira. Baina gerta daiteke komunitate hori oso zorrotza izatea eta dauden disidenteei askatasun adierazpen minimorik ez ematea.

Komunitate bati bere berezitasunak errespetatu behar zaizkio, baina beti mugak ezarri, beste askatasuna baliogabetu gabe, disidenteen egoera arriskuan gera baitaitezke. Egoera hau gudetan ematen da, barrabaskerien inguruan

beligerante izan behar gara, injustiziak onartu gabe. II. Mundu Gudan adibidez Hitlerrek sortutako egoeraren aurrean potentzia asko neutral mantendu ziren, eta hori gaur egun onartezina da. Neutral mantentzea, ez da zuhurra izatea.

## “Tolerantzia egokian hezi” nola lortu daiteke hori?

Tolerantzia elkarbanatzeko hezkuntzan haztea da praktikoena ume batentzat. Eztabaidatzea ona da, baina beste iritziak kontuan hartuz eta ez gure balioak inposatuz; hau zaila da. Umeari gauzak alde onak eta txarrak dituztela erakutsi behar zaizkie, eta hauek arakutzen. Prozesu honetan umea heziz gero, zapia daraman emakume horren kontrari jarri baino lehen, zergatik egiten duen galdetzer eta entzuzera joko du.

Hau eman eta gero arazoak ere suerta daitezke. Nik agian ulertu egiten dut zergatik daramazun zapia, baina zuk ulertu behar duzu denda batean bezeroei harreraregiteko agian zapia eramatea ez dela egokiena. Gauza guztietarako mugak egon behar dira. Komunitate horrek jakin behar du bere eskubideak

errespetatzen direla, baina elkarbizitzarako muga batzuk daudela. Besteen eskubideak errespetatu behar dira gurek errespetatuak izatea nahi baditugu.

## Tolerantzia manipulaturik egon daiteke?

Bai. Guztien manipulazioa jasotzen du. Zerbait berria suertatzen zaigunean itxi egiten gara, eta arazoak sortzen dira. Adibidez, Lasarte-Oria immigrante lurraldea izan zen, eta seguraski hasieran lanera zetozten horiek onartzea zaila egingo zitzaieela hemengoei. Baina integrazio fenomeno eman, eta orain garai horretan bizitako orrialdeak itxiak egongo dira.

Gai hauen inguruan solastea eta eztabaidatzea oso garrantzitsua da, hemen Danok Kideak antolatzen dituen eskola txiki hauetan bezala, gai hauen aldeko joera hartzen delako.

## Zer aurkituko dute kultur etxera hurbiltzen direnak?

Kezkatzen gaituen gai baten inguruko hitzaldi bat. Pena merezi du gai hauen aldeko apustua egiteak. Guztiok bakean bizi nahi dugu eta hori gure gazteei helarazi behar diegu.

## Gaur ez da Lasarte-Oria bizi-tatuko duzun lehen aldia...

Ez, eta espero azkenekoa ez izatea. Gustukoa dut herria. Sentsazio misto bat ematen dit. Beti mugimenduan, aldakor, eztabaidagarri. Beste leku askori hori falta zaie, konplexutasuna, eta hori oso aberasgarria da. Kritika, ezberdintasuna, eztabaida edo aurkakotasuna ez dagoen lekuetan, kaltea dago. Lasarte-Oria herri bizia da. •



Xabier Ibarzabal izango dugu gaur kultur etxean tolerantziaren ikuspuntu globalaz hizketan.

“Balioen hierarkia bat dago, baina bizi garen garaiaren arabera garrantziak gora edo behera egiten du

## Egunero

### Erakusketa

JUAN MARI CEREZO, herriko musikari zenaren omenez argazki erakusketa jarriko dute Lasarte-Oriako taldeek. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



### Erakusketa

LASARTE-ORIAKO BIZILAGUNEN elkarteko margo eskolako lanak ikusgai. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00ak arte.

## Astelehena, 10

### Hitzaldia

TOLERANTZIAREN IKUSPUNTU OROKORRARI buruz arituko da Xabier Ibarzabal, medikuntzan doktorea eta bioetikaren aditua, Danok Kidek antolatutako Balioetan Hezi VII. Jardunaldien barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

## Asteartea, 11

### Kontzertua

KONTZERTU PEDAGOGIKOA Donato Goyeneche eta Xabier Arakama trikitixa eta perkusio bikotearen eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.



## Musika eta sukaldaritza osteguneko filmean

SOUL KITCHEN filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Jate-txe baten jabe da Zinos gaztea, baina bolada txarra darma. Nadine, bere neska, Shanghaira joan behar izan du lan kontuengatik, berak diskaren hernia bat du eta betiko bezeroak joan egin zaizkio sukaldari berria duenetik...

MAIATZAREN 13AN, OSTEGUNA  
KULTURETXEAN 21:30EAN  
SARRERA 4, 15 EURO

### Hitzaldia

TOLERANTZIA ETA IDEOLOGI POLITIKOEI buruz arituko da Martin Auzmendi, zuzenbidean lizentziatua, Danok Kidek antolatutako Balioetan Hezi VII. Jardunaldien barruan. Kulturetxean, 19:30ean.

### Hitzaldia eta DVD emanaldia

MEMORIA HISTORIKOARI eta ALTXAMENDU FAXISTARI buruzko hitzaldia eta DVD emanaldia antolatu ditu Sorgin Jaiei batzordeak. Xirimiri elkartearen 19:30etan.

## Asteazkena, 12

### Hitzaldia

TOLERANTZIA ETA INMIGRAZIOARI buruz arituko da Agustín Unzurrunzaga, Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren ordezkaria, Danok Kidek antolatutako Balioetan Hezi VII. Jardunaldien barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

## Osteguna, 13

### Berto-saioa

AHOZKOTASUNA ETA BERTSOLARITZA jaialdia ospatuko dute Sasoeta-Zumaburu ikastetxe-ko eta Landaberri ikastolako haurrek. Urtean zehar ikasitako erakutsiko dute emanaldian. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:15ean.



### Hitzaldia

TOLERANTZIA ETA ERLIJOARI buruz arituko da Tomas Muro, teologoa eta irakaslea, Danok Kidek antolatutako Balioetan Hezi VII. Jardunaldien barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

### Batzarra

SORGIN JAEI BURUZKO BATZAR IREKIA. Xirimiri elkartearen 19:30etan.

## Ostirala, 14

### Kontzertua

IBAI TALDEAREN emanaldia entzungai Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

## Larunbata, 15

### Sorgin Jaiei aurkezpen festa

FAXISMOAREN BIKTIMEI OMENALDIA aurten goizko pregoilariak 16:30ean eta Garraxi Ixilak antzerkia 23:00etan. Goizean umeen jokoak, sagardo dastaketa eta taloak, bazkari herrikoia, bazkalostean trikitilariak, Joseba Tapia eta Fermin Valencia eta 19:30etatik aurrera erromeria. Frontoi berrian.

## Ostirala, 21

### Kontzertua

LOUISE MICHELEN emanaldia. Indie, fusion musika estiloak jorratzen ditu. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

## Ostirala, 28

### Kontzertua

ARIMAZ KAMERA ORKESTRAREN emanaldia Danok Kide elkartearen antolatutako V. Musika Topaketen barruan. Brigitarren kontuentia, 19:30ean.

### Jam sesioa

J. 345 TALDEA izango da gonbidatua Jam Sesioan, Talde donostiarrak jazz, swing eta funk jorratzen du. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan.

## Igandea, 30

### Dantzara

XXII. DANTZARI TXIKI eguna ospatuko da. Herriko kaleetan zehar, egun osoan.



## Oharrak

### Usurbilgo Lanbide Eskolaren ate irekiak

Usurbilgo Lanbide Eskolak urtero moduan Ate Irekien eguna antolatuko du.

Aurten, bi egunetan, maiatzaren 15ean eta 22an goizeko 11:00etan, eskolako instalazioak zabalduko dira interesadunen guztiarentzat.

Informazio gehiago nahi izanez gero 943 364 600 telefono zenbakira deitu edo www.lhusurbil.com web ataria kontsultatu.

### Marrazketa eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak antolatzen duen marrazketa eta margo eskolan plazak badaudela jakinarazi nahi dute antolatzaileek. Izena emateko jo kulturetxeko 2. solairura 18:00etatik 19:00ak bitartean, astelehena, ostiralean eta larunbat

goizetan 09:30etik 11:30era.

### Zabaletako festak

Zabaletako Auzo-elkarteak ekainaren lehenengo astean, ekainaren 2tik 6ra antolatuko ditu Zabaletako festak. Hauek antolatzeak asteartean, 19:30ean, Antonio Blas plazan bilera egingo dela jakinarazten du auzo elkarteak.

### Udaltzainek jasotako gauzak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkatela jasota, urrezko eskumuturrekoa, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilakia, Festina markako eskumuturreko erlojua, Alcatel markako mugikorra, belarritako beltza eta doratua, bi betaurreko graduatu, erloju digitala eta urrezko aliantza, Jose Luis grabaketarekin

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hila-beteko epean izan behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

### Errugby eskola

Beltzak-Ostadar Errugby eskola martxan jarri zen otsailean. Geroztik, igandero, goizeko 09:00etatik 10:30 bitartean entrenatzen dute Michelinen.

Errugby eskolako antolatzaileek Lasarte-Oriako ikasle guztiak gonbidatzen dituzte honetan parte hartzera.

### Udako Txokoetan begirale izateko

Haurrak gustukoak dituzten

gaztetxoei Udako Txokoetan begirale izateko aukera eskaintzen die Ttakun Kultur elkarteak. Apirila eta maiatza bitartean zabalik izango da begirale moduan aritzeko izena emateko epea. Begirale izateko baldintza bakarrak 18 urte baino gehiago izatea eta euskara maila txukun bat edukitzea da. Begiraleak aukeratzeko proban, begirale titulua, esperientzia eta hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak edukitzea hartuko dira kontutan eta puntuazio bidez aukeratu dira.

Izen-ematea Ttakunen egin behar da (Geltoki kalea 4) eta informazio gehiagorako deitu 943 371 448 telefonora.

### Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Euskal dantzak, tangoa, sebillanak, sabel dantza, dantza garaikidea,... eskaini zituzten lasarte-oriatarrek. Tartetan Andoni Egaña, Xa bier Paya, Unai Muñoa eta Ane Labaka bertsolariek kantatu zuten.

# Bertsoak dantzan

■ Lekuona Hotelean herriko dantzarien topaketa egin zen larunbatean. ■ Egaña, Paya, Labaka eta Muñoa bertsolariek bertsoetan dantza egin zuten kultur etxean

JON ALTUNA

**Dantzan aritu zirenek bertsoari bidea zabaldu eta bertsolariek dantza egin zuten larunbat gauean Lekuona Hoteleko ikuskizunean. 130 herritarrek parte hartu zuten eta beste 300 ikusle baino gehiagok Kultur Etxearen goiko eta beheko eserlekuak bete zituzten herriko bertsolari, kantari, musikari eta dantzarien emanaldia ikusteko. Nabari da denetarik egiten dela Lasarten, eta antzerkilari, dantzari eta bertsolari bikainak daudela herrian. Saio borobila izan zen.**

**N**ikusgarria izan zen hasieratik bukaerara Kultur Etxean larunbat gauean eskaini zen emanaldia. Titakuneko bertso eskolako antolatzaileek Lekuona Hotel bihurtu zuten kultur etxea eta Landaberi Antzerki Taldeko kideak izan ziren bertan harrerako neska, garbitzaile, edota "maleta asko eta propina gutxi" kezkatzen zen mandatu mutila eta Hoteleko langile hauek gaueko dantza eta bertso saio ezberdinen gidari.

Eraz egin zuten txalo bertan bildu ziren ikusleek eta une gogoangarri asko izan ziren. Hauetako batean Xabier Paya eta Andoni Egaña bertsolariek flamenkoa inprobisatu zuten, euskaraz noski, edozein kantore andaluziarren ahots eta kantakera imitatuz.

Xabier Paya eta Ane Labakak banakoa kantatu zuten, Paya eta Andoni Egaña tangoa,... Xumela abesbatzak errota baten soinua eta mugimendua irudikatu zuten, denetarik izan zen beraz saioan.

Lekuona Hotelean dantzarien topaketa bat zegoela iragarri eta lau bertsolariak harrera gelan kafea eta kopa hartzen ari zirela hasi zen ikuskizuna. Xumela abesbatzakoak iritsi ziren lehenak Hotelerara eta euren ahotsek errotaren mugimendu eta soinua irudikatu zuten, kide batek iriña galbaetatik pasatzen zuen bitartean. Andoni Egaña eta Unai Muñoak horri buruzko bertsoak kantatu zituzten.

Ondoren Erketz dantza taldekoek banakoa dantzan zuten Paya eta Labakak doinu horrekin kantatzen zuten bitartean. "Neskek gutxi dantzatzen dute, mutilek ia batere ez" gaiarekin Ane Labakak ederki hasi zuen saioa, "Messi asko eta Billy Eliot gutxi" zirela esanez.

## Erotismoa

Flauta boskotearen ondoren sabel dantzaren txanda iritsi zen, eta Andoni Egaña "sabel dantza ez da bakarrik erotismoa" gaiari kantatu zion, batetik modu ezin hobean sabela emetasun, amatasun eta umetasunarekin lotuz eta gero ikuitu euskalduna emateko mahai bueltako jarduna, sukalde eta komuna aipatuz.

Landaberriko Antzerki eta Dantza eskolako gazteek dantza garaikidea eskaini zuten ondoren, Katamaloren "Berriz min hau". Ane Labakak lan bikoitza izan zuen Eskolako kide denez dantza ere egin zuen eta. Ondoren Xabi Payari bizkaieraz kantatzeko agindu eta ikusleak barrezka, txaloka eta zutik jarri zituen.

Gitanillos del Alba eta Duen-de Flamenco herriko Semblante

Andaluz elkarteko taldeek Irrien Lagunak diskoko "Maite dut Trikitixa" sebillana dantzan zuten Porrotx, Mari Motots eta Idoia Uralde kantariarekin batera. Gero Unai Muñoa eta Xabi Payak "Triste bizi naiz eta" flamenkora eraman behar izan zuten; "Pantoja eta Txirrita elkartu ditzagun" hasi zen Paya. Xabier bera Camaron de Egañarekin aritu zen gero 14 heriotzarena doinuarekin. Saio benetan desberdin, ikusgarri eta bikainak borobildu zituzten bertsolari izatearekin batera showmanak ere badirela erakutsiz.

## Jendeartean kantari

Eta horrela jarraitu zuen ikuskizunak, dantza eta bertsoak tartekatuz. Dantza garaikidea, fandangoa eta arin arina soinujole eta biolinjolearekin, Dantzarin taldekoen tangoa eta "zutaz maite" doinuarekin Paya eta Egaña kantari... bukaera aldera Unai Muñoa, Andoni Egaña eta Xabi Paya ikusleen artera jaitsi ziren segidillak, segi eta segi, kantatzera. Hasteko Muñoaren amari kantatu zioten, ondoren Andoni Egaña ordu horretan amaituak ziren Barsa-Sevilla, eta Real Madrid-Athletic partiduen berri eman zuen eta azkenik gaztetxo eta amonekin ligatze kontutan ibili ziren.

Agurretan bertsolariek saioko parte hartzaile eta ikusleei egin zuten erreferentzia, "munduan hau da hotel bakarra 300 izarretakoa" (Egaña), "mugimendua eta kantua Lasarten bizirik dago" (Muñoa) eta "sentimendua dantzan jartzea, bezelakorik ezta" (Labaka). •



Saio borobila burutu zuten lau bertsolariek "Lekuona Hotelean".



Paya eta Egaña tangoa kantatu zuten soinua eta biolin joleen laguntzaz.



Bertsolariek jendeartera jaitsi zirenean Muñoaren amari kantari.



eeeeeeeeeeee eta oooooooooo-ak luzatuz bertso-flamenkoa egin zuten.